

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko urriak 28 · 1245 zenbakia



AMAIERARA IRITSI DA MARTIN ZALAKAINEN ABENTURA



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta irteki
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. ERREFORMAK
ERREFORMAK
ERREFORMAK

E.I.T.

TRAJAKINEN
TRAJAKINEN
TRAJAKINEN

Info@ajtkolonia.com TEL. 943 80 18 80

AJT Euzkoarene S.L.
Barrena, 6 - beheko kate.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

HELBAIDE
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristalcrisacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arkitzateko Zuhaitz

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
balta toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azainain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak / Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16



ELEKTRIZITATEA

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922 www.thelecer.com

Jarraitu gaitzazu!



Kezka dantza taldeko Miren Hazasek, Idoia Lahidalgak eta Josu Garatek Martin Zalakain ikuskizuna egiten bizi izan dutena kontatu digute.



Raquel Rierak eta Danel De Pradok bigarren saria eskuratu zuten Climathon Eibar 2022 leihaketan, 'Eibarko udalerrian energia-komunitatea diseinatzea eta abian jartzea, autokontsumo-eredurik erabili gabe' erronkari aurre eginez.



@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Kezka dantza taldea

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Ehunera lasai

Hamasei urtez Eibarren ez zan izan kultur aztarrenik bai, ordea, aldaketa nahia ta lan egingo zuenik

Sasoi ilunak Eibartarrantzat frankotarrak ta eleiza batzuenaz zein besteena zan oso luzea keriza.

Hirurogei ta hamar zutela elkarte martxan jarri harrezkeroztik gauza on asko eskaini dio Eibarri

Txakalaldia aittatu barik ez ginateteke ondradu berpizkundeak, bere xumean, eginak garrantzia du.

Maider, Oier, Maite ta Poxpolo, jaietan euskera gura aukera ona Arratiakin lantzeko gogoz Kultura

Goraintzi, txalo eibartar jator bazkide, lagun, burkide Euskal Kultura bekigu beti azken helburu ta bide.

Trunboi (doinua: Eibartarren koplak)

ORDU ALDAKETA

Asteburuko zapatutik domekarako (urriak 30) goizaldeko 03:00ak heltzean, erloju guztiak ordu bete atzeratu egin beharko ditugu, 02:00etara. Beraz, ofizialki ordu bete gehiago izango du asteburuko domekak. Neguko ordutegiak martxoaren 26ra arte iraungo du, udakoa berriro indarrean jarri arte.



Astean esanak



Ez daukat ezer umeen aurka; andereñoa izan naiz urte askoan, baina haurrak ez dira ondo moldatuko gurean. Haurrak dauzkaten gurasoak ere etorri izan dira erlaxatze- ra, eta umeen aurka al daude horiek ere? Tontakeriak dira horiek. Portzelanazko gauzak-eta dauzkagu etxean, eta umeak ez dira ondo moldatzen horrelakoetan. Kalitatea bermatzearen aldeko apustua egin genuen guk; dena modu ekologikoan lantzen dugu, eta arreta berezia eskaintzen diegu etortzen direnei; jende mota jakin batentzat ari gara lanean. Azken bizpahiru urteotan aldatu egin da merkatua, eta Espainia aldetik deiak jasotzen ari gara, gazte taldeek etxe guztia hartzeko. Baina monumentu historikoa da etxe hau, eta gure eskaintza es dago horra bideratuta.

ESTHER GISASOLA, Sosola nekazaritza-etxea

Groznin gizonezkoak gerrara bidaltzeko Putinen deialdiaren aurkako manifestazio oso urrietan, 50 lagun baino ez (gehienak emakumezkoak), parte hartzen duten emakume gutxi horiei, egurtzeaz aparte, ondoren euren senarrei deitu eta gauza bera egitera behartzen zaie eta, hori gutxi balitz, jarraian semeak gerrara bidaltzen dituzte, Jarkalako basera eraman, rifle bat eman eta Ukrainara zuzenean. Txetxenian 500etik gora bahiketa eman dira azken aldian, guztiak esandako mobilizazio isil horrekin lotuta. Horrela, belaunaldi oso bat zapuzten dihardute, arazo demografikoa bihurtzeraino. Esan behar ez zenuen zeozerk ihes egiten badizu, gauean bisita jasoko duzu etxean eta baita hurrengo egunean goizez barkamena eskatzeko agindua ere. Eta egin egingo duzu, bestela zure bila joan beharrean zure familiak ordainduko duelako.

HAROLD CHAMBERS, Kaukasoko analista

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OKERTU → Bihurtu, makurtu. "Makilla-burua okertutzia gura eban, eskulekua egitteko".

Txartu, gaiztotu (zentzu figuratuan). "Lagun txarrak okertu eben betiko".

OKOZBIKO → Okozpea. Gaztelarazko 'papada'. "Okozbiko guri gurixa eban".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 28
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 29
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 30
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ASTELEHENA 31
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 1
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 3
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 4
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Angel Urzainki Sanz**. 93 urte. 2022-10-18.
- **Fatima Sayeh Mohammed**. 71 urte. 2022-10-18.
- **Roman Martinez Abad**. 84 urte. 2022-10-19.
- **Iñigo Zarrabe Astorkia**. 55 urte. 2022-10-23.
- **Juan Antonio Barrio Ledesma**. 92 urte. 2022-10-23.
- **Yosu Osa Aizpuru**. 60 urte. 2022-10-23.
- **Maria Luisa Perez Ramirez**. 47 urte. 2022-10-25.
- **Miguel Garcia Cruz**. 87 urte. 2022-10-26.

Jaiotakoak

- **Oier Agirrezabal Agirregomezkorta**. 2022-10-12.
- **Aini Hoxha**. 2022-10-15.
- **Sara Agirregomezkorta Ribeiro**. 2022-10-15.
- **Telmo Lucena Marcos**. 2022-10-16.
- **Maia Apilanez Garmendia**. 2022-10-19.
- **Yosuf Khalifa Mohamed**. 2022-10-19.
- **Amir Atmani Kermaoui**. 2022-10-19.
- **Urko Conde Castillo**. 2022-10-21.



Kintada ezberdinetako ospakizunek bete dituzte urriko asteburuak

Beste batzuetan ere kintoen jai ugari pilatu ohi dira urrian, baina aurtentzen inoiz baino talde gehiago ari dira animatzen eta zapatuero bizpahiru urte ezberdinetako bazkari

eta jaiak ospatzen ari dira. Goiko argazkikoak 1991an jaiotakoak dira eta urriaren 8an elkartu ziren. Eta zapatuan 1962. eta 1957. urtekoen txanda izan zen.



Ordutegi berezia kanposantuan eta meza, Domu Santu egunarengatik

Domu Santu eguna dela eta, Eibarko Udal hilerriko ordutegia honako hau izango da: urriaren 30ean eta 31n eta azaroaren 1ean, 08:00etatik 20:00etara. Eta, bestalde, azaroaren 2an meza egingo da hilerriko kaperan, 11:00etan.



Ibarkurutzeko iturria garbitzen dihardute

Astelehen goizean hasi zituzten Ibarkurutzeko iturria garbitzeko lanak, barixakuan horretarako prestaketa-lanak egin eta gero. Jakinarazi dutenez, iturriaren harriak garbitzeko hainbat lan egingo ditu Udalak kontratatutako enpresa batek, beste hobekuntza batzuekin batera. Lan horiek 10.360 euroko kostua izango dute (BEZa barne). Horrela, iturriaren itxura “nabarmen” hobetuko dela adierazi dute.



Kabiak jartzeko irteera azaroaren 5erako

Eibarko Baso Biziak elkarteak txori kabiak jartzeko irteera antolatu du azaroaren 5erako. Urkizuko iturrian elkartuko dira, goizeko 10:00etan, eta Santa Kurutzera joango dira: “Gurekin Asier Sarasua aditua etorriko da. Hamar kabi jartzeko asmoa dugu eta Eibar inguruan dauden hegaztien fitxak izango ditugu eskura, ezagutza errazteko. Prismaticoak eramatea gomendatzen dizuegu”. Interea duenak aurretik izena eman beharko du, eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera idatzita, plazak mugatuak baitira.



Herri batzarra eta Oskar Matuteren hitzaldia

Eibarko EH Bilduk batzarra egingo du eguaztenean Bilgunean, 18:00etan, eta Oskar Matute EH Bilduren diputatua Espainiako Kongresuan arituko da berbetan. Bestalde, Bilbon azaroaren 12an egingo den manifestaziorako, Abante deialdiarekin bat eginez, autobusak antolatu dituzte. Izena emateko Guridi, Buenos Aires eta Depor tabernetara jo daiteke.

Eskualdeko bost jatetxetan eska daiteke Tripontziak Menua

Tripontziak ekimen gastronomikoa egingo da zortzigarrenez azaroaren 4tik 27ra eta, horren baitan, Debabarreneko bost jatetxek bertako eta sasoiko produktuez baliatuz, proposamen gastronomiko “iradokitzaile eta ezberdinak” eskainiko dituzte, 32 eurotan. Horrez gain, eskualdeko hainbat produktu esanguratsu nola egiten diren ikusteko aukera ematen duen ekimena ere antolatu du Debabarrena Turismok. Hauek dira ekimenean parte hartuko duten jatetxeak: Txurruka (Soraluze), Kanala (Itziar, Deba), Mendiola (Ermua), Pikua (Mutriku) eta Baratze Gourmet (Eibar). Erreserba egiterakoan “Tripontziak Menua” nahi dela adierazi behar da eta prezioa pertsona bakoitzeko da (ogia, edaria, kafea eta BEZa barne). Menu guztiak debabarrenaturismo.com helbidean ikus daitezke.

Bestalde, ekimenak irauten duen bitartean, Debabarrenean ekoizten diren zenbait produktu (txokolata,

gazta, taloak eta sagardoa) nola egiten diren gertutik ezagutzeko ekimena ere abiatu dute. Mendaroko txokolata nola egiten duten ikusteko saioa eta Mutrikuko Goienetxe baserriko gaztandegira joateko irteerak honezkeroko bete dira, baina badaude saio batzuk ere: Lasturko talo tailerrera bisita azaroaren 19an izango da eta azaroaren 27an, berriz, Elgoibarko Lizagarzar Sagartokian izango da zita. Parte hartzeko izena eman behar da aurretik, 943 820 110 telefono zenbakira deituta (astelehenetik barixakura, 08:00etatik 15:00era) edota turismoa@debegesa.eus helbidera idatzita. Plazak mugatuak dira.

Eta sariak irabazteko aukera ere izango dute parte-hartzaileek. Horretarako partaidetza-kupoa eskatu eta bete beharko dute establezimenduan, eta menua jaten den jatetxean entregatu. Debabarreneko produktuez osatutako bi sorta eder zozketatuko dituzte.



Atzegi elkarteak sentsibilizazio kanpaina berriaren aurkezpena egin du

“Nire erara bizitzeko erronka”. Hori da Atzegiren aurtengo kanpainarako aukeratu duten goiburua eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen nola bizi nahi duten erabakitze eskubidea aldarrikatzen du. Hala azaldu zuten aurreko astean Atzegi elkarteak ordezkariek, kanpainaren aurkezpenean: “Izan ere, adimen desgaitasuna dutenen artean denetarik dago: gurasoekin bizi nahi dutenak, beraien kabuz modu independente batean bi-

zitzea nahiago dutenak, bakarrik, lagunekin, bikotearekin... Eta, bakoitzaren autonomia mailaren arabera, laguntza gehiago edo gutxiago beharko dute. Aniztasun hori da erakutsi nahi dena, hain zuzen ere”.

Asmo horrekin, kanpaina honetarako lau kartel egin dituzte, bizitzeko lau modu ezberdin irudikatze eta, horrekin batera, sare sozialetan zabaltzen joango diren beste horrenbeste bideo prestatu dituzte.

'Berrerabili eta berrasmatu' tailerretan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Azaroan eta abenduan egingo diren 'Berrerabili eta berrasmatu' tailerren bigarren txandan izena emateko epea zabaldu du Udalak. Ikastaroek hondakinen berrerabilpena sustatu nahi dute. Izena emateko epea zabalik egongo da azaroaren 6ra arte, eta tailerrak azaroaren 17tik abenduaren 13ra bitartean egingo dira. Parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko

dute izena, Udalaren webgunean edo Pegoran (plaza kopurua mugatua da eta). Internet bidez izena emateko helbidea hau da: <https://formularioak.eibar.eus/eu/berrerabilietaberrasmatu>. Tailerrei buruzko informazio gehiago eskuratu daiteke 943708408 telefonora deituta edo ingurumena@eibar.eus helbide elektronikoaren bidez.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak eskatzeko epea amaitzeaz

Azaroaren 11ra bitartean aurkeztu ahal izango dira lokal komertzial, industrial eta elkarteetako egoitzetako errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntza eskaerak. Dirulaguntzak herriko lokal komertzialetako, industrialetako edo elkarteen egoiztetako irudi korporatiboa osatzen duten errotulu, inskripzio eta elementuak euskaraz edo ele bietan (euskara-gaztelania) jartzeko izango dira eta diruz lagunduko den gastua, berriz, 2021eko azaroaren 13tik 2022ko azaroaren 11ra bitartean egindakoa izan behar da. Bestalde, testuak zuzen eta egoki idatzita egon beharko dira eta euskararen presentzia, gutxienez, gaztelaniaren parekoa izango da ele bietan daudenen kasuan. Eskaerak elektronikoki egin daitezke, www.eibar.eus udal webgunean.



Artisten Elkarteoak Asturiasen egon dira

Eibarko Artisten Elkarteoek Asturiasera bidaiatu egin zuten aurreko asteburuan. Besteak beste Xixon, Aviles eta kostaldeko herri batzuk (Tazonas, Lastres eta Ribadesella) ezagutzeko bisita gidatuak egin zituzten. Talde argazkian, irteeran parte hartzerantz animatu zirenak daude.



Sozietateek Eibarko industriarian izandako eraginari buruz berbetan

“Elkarte gastronomikoen papera Eibarko Industrian” izenburuari jarraituta egingo du berba Igor Etxabe Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak datorren astean, barixakuan, 18:00etatik aurrera Legarre Gain elkarte gastronomikoan. Sarrera doan izango da. Etxabek orain dela urte batzuk hasi zuen gaiari buruzko ikerketa, 1996an ...eta kitto! Euskara Elkarteak kaleratu zuen liburutik abiatuta, elkarte gastronomikoei sasoi bateko gizarte-harremanetan nolako eragina izan zuten jasotzeko asmoz, besteak beste.



Energiaren kontsumoa murrizten laguntzeko bi tailer egingo dira azaroan

Azaroan Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak sustatutako “Energia Argitu” programaren beste bi jardunaldi egingo dira Eibarren. Asmoa “energiaren, bereziki elektrizitatearen kontsumoa, murriztea” da. Egingo diren bi tailerrak Udalaren laguntzarekin antolatuta dira, eta azaroaren 9an eta 16an izango dira, Portaleko ikastaro-gelan, 18:30etik aurrera. Lehenak honako gaia izango du ardatz: “Energia berriztagarriak

zure etxebizitzan... posible da!” eta bigarrenean etxebizitzetan auto-diagnostiko energetiko bat egiteari buruz arituko dira. Tailerreen parte hartu nahi dutenek azaroaren 4a baino lehen eman behar dute izena, edukiera mugatua da-eta; horretarako mezu elektronikoko bat idatzi behar dute argitu@gipuzkoa.eus helbidera edo 605757687 telefonora deitu (astelehenetik barixakura 09:00etatik 18:00etara). Informazio osagarria www.argitu.eus atarian eskura daiteke.

B

ERBETAN

EUSKALDUNAK behar ditugu!!!!

- MINTZAPRAKTIKA BEHAR DUTENEI *laguntzeko*
- ASTEAN BEHIN, ORDUBETE, *besterik ez*
- TALDE TXIKIETAN ETA GIRO *zoragarrian!*

943 200918 – DEITU EDO IDATZI – www.etakitto.eus

Zigiluak egiten ikasteko tailerrak

Azaroan beste bi ikastaro antolatuko ditu ...eta kitto! euskara elkarteak Illunabarrian programaren barruan: batetik, azaroaren 15ean, “Zigiluen zizelkatzea” izenekoa antolatuko du, eta azaroaren 22an, berriz, “Zigiluen estanzazioa”. Elkartetik diotenez, “lehenengo saioan gure zigilua sortuko dugu kautxuzko zizelkatzearen teknika bidez. Beharrezkoak diren materialak zeintzuk diren ikasiko dugu: goma eta paper mota ezberdinak, tintak..., eta, horrez gainera, zigiluen zizelkatzea egiteko oinarrizko tresnak ere ezagutuko ditugu”.

Bigarren tailerlean “landutako zigiluekin paperean eta oihalean estanzatzeko beharrezkoa dugun guztia ikasiko dugu, aplikazio desberdinak, garbiketa eta hainbat gomendio”. Lehenengo saioa izango da luzeena, “gauza asko irakatsi behar dira eta denbora eskatzen du. Bi ordu eta erdiko iraupena izango du, 18:00etatik 20:30era”. Bigarrena, berriz, bi ordukoa izango da, 18:30ean hasi eta 20:30ean amaituko da. Izena gaurtik hasita azaroaren 10era arte eman ahalko da. Horretarako 943200918 telefonora deitu daiteke edo mezua



bidali elkarte@etakitto.eus helbidera. Izen-emateak 10€ balio du (egunean bertan ordainduko da), eta doakoa da ...eta kitto! Euskara Elkarteak bazkideentzat.



Terrarioekin amaitu dira landare-tailerrak

Joan zen astean Japoniatik etorritako teknika artistikoarekin kokedamak egin eta gero, aste honetan terrarioen txanda izan da. Terrarioa beirazko ontzi baten barruan dagoen lorategi txiki bat da. Tailerlean terrarioa nola egin, zein landare erabil daitezkeen eta berau sortzeko ezinbestekoak diren elementuak zeintzuk diren ikasi zuten (ikatza, goroldioa, harriak...). Kaktus txikiekin eta koloretako esmalteekin margotutako harri txoekin osatu eta apaindu zituzten terrarioak ...eta kitto!-k antolatutako tailerrera hurbildu ziren dozena bat lagunek.

Bertso-paper lehiaketako azkeneko egunak

San Andres bertso-paper lehiaketa azkeneko txanpan sartu da eta azaroak 4 izango da lanak entregatzeko azkeneko eguna. Eibarko ikasleek, 16 urtetik beherakoek, bertso bat edo bi kopla aurkeztu beharko dituzte, eta 16 urtetik gorakoek (Euskal Herri mailan), lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta 10 gehienez. Lanen hiru kopia entregatuko dira gaitzizenarekin (gutunazal itxian egilearen datuak) honako helbide honetan: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Urkizu 11 solairuartea. 20600 Eibar. Gaztetxoan mailako irabazleak txapela irabaziko du eta bigarrenak plaka. Helduen mailako irabazleak, berriz, 300€ eta 250€ bigarrenak. Irabazleek azaroaren 24an Coliseo antzokian egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dute saria.



Barixakuak Jolasian Urkizun egingo da gaur

Aurreko barixakuan Torrekuako parkean egon ondoren, Urkizuko parkeak hartuko ditu gaur Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. Betiko moduan, 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak egingo dira, 17:00etan hasita 18:00ak arte.

GALDERA ETA ERANTZUN OHIKOENAK

“Herritarrek berotze-sistemen inguruan galdetzen digute nagusiki”

Herritarrak gehien kezkatzen dituzten gaiei buruz egin digute berba Energia Bulegoak.

Nola hasi zineten zerbitzua ematen?

Debegesak aspaldi eskaintzen du Etxebizitzak Birgaitzeko Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzako birgaitzeko dirulaguntzak bideratuz. Azkenaldian energiari buruzko galderak egiten zizkiguten erabiltzaileek eta, erantzun espezializatu bat behar zutela ikusita, Energia Bulegoa jarri genuen martxan. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, energiaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak ere egiten ditugu.

Nortzuk dira zerbitzuaren ohiko erabiltzeak?

Enpresek oso era konkretuan erabiltzen dute zerbitzua, baina erabiltzaile nagusiak herritarrak, komunitateetako presidentek eta komunitateetako kudeatzaileak (gestoriak) dira.

Birgaitzeari dagokionez, zein da gehien jasotzen duzuen kontsulta?

Azken aldiari energiaren gaia pil-pilean dagoenez, etxebizitzaren isolamenduari lotutako kontsultak jasotzen ditugu batez ere. Isolamenduari buruz egiten dugunean, leihoei, fatxadei eta teilatuei buruz ari gara, besteak beste. Hau da, nola lortu gure etxebizitzek efizientzia energetiko handiagoa edukitzea.

Komunitateek zeren inguruan galdetu ohi dute?

Komunitateetako teilatuetan plaka fotovoltaikoak ipintzeari buruz. Hau da, zenbat plaka ipini dezaketen, zein potentzia instalatu dezaketen, gutxi gorabeherako inbertsioa zenbatekoa izango den, arautegia, jarraitu beharreko prozedurak, dirulaguntzak...

Herritarrek zer galdetzen dute energia berriztagarriari buruz?

Berotze-sistemen inguruan galdetzen digute nagusiki. Gasaren eta elektrizitatearen egoera



Energia Bulegoan gero eta kontsulta gehiago jasotzen dituzte eguzki-plaka fotovoltaikoaren instalakuntzaren inguruan.

ikusita, biomasaren eta geotermiaren inguruko galderak egiten dizkigute etxea berotzeko gaiaren inguruan.

Faktura optimizatzeko zerbitzua eskaintzen duzue. Nola?

Prezioen gorakada ikusita, faktura elektrikoak optimizatzeko aholkuak ematen ditugu. Adibidez, familia batzuentzat tarifa bereziak daude.

Aipatutakoez gain, zein beste zerbitzu eskaintzen duzue?

Gure helburua da bere egoera energetikoaren inguruan erabakia hartu nahi duen edonork gida bat edukitzea, norberak bere diagnostikoa modu errazean egiteko. Horretarako, Debabarreneko hiru etxebizitza topatu nahi ditugu monitorizazio bat egiteko, eta horrela gida batzuk sortuko ditugu norberak bere kasuaren azterketa errazago egin dezan.



Jatorri ezberdinetako eibartarrak ezagutzeko aukera



Bizilagunak ekimena ohiko jardunera itzuliko da aurten eta, azkenengo aldiz parte-hartzaileak Internet bitartez bildu ondoren, aurrez aurre egin ahal izango dituzte bazkari multikulturalak. Horrela, jatorri ezberdinetako eibartarrek elkar ezagutzeko aukera izango dute janariak, bizipenak, kontakizunak eta barreak partekatuz.

Informazio gehiago ekimenaren webgunean:



Azaroaren 20an, domeka, egingo da Bizilagunak ekimena. Egitasmo honen bitartez bertakoak eta bertara iritsiak bazkari baten baitan elkartzen dira, dinamizatzaile eta mahai zapi baten laguntzarekin, “aurreiritziak eta estereotipoak gainditzea eta gizarte kohesionatuago baten alde egiteko”, antolatzaileen berbetan.

Aurtengo Bizilagunak ekimenaren goiburua ‘Elkar ezagutzearen onena’ da. Izan ere, helburua “bizikideen artean kultura anitzeko eta kultura arteko errealitate batean sareak eraikitzea da, aurreiritziak alde batera lagata eta, nagusiki, elkar ezagutzuz”, ekimenaren sustatzaileek diotenez.

Horrelako bazkariak antolatzeko arrazoi nagusia elkar ezagutzeko bidea zabaltzea da. Antolatzaileen ustez, “elkar hurbiltzeko urratsa eman nahi baina horretarako aukerarik ikusten ez dutenak asko dira, bertokoak zein kanpotik etorritakoak”. Izan ere, bertako askok ez dute aukerarik edota ez dakite zer egin atzerritik iritsitakoak ezagutzeko, eta alderantziz. Beraz, hori konpontzeko eta, era berean, nor bere jakin-mina asetzeko eta bestelako jatorri, kultura, ohiturak edota pentsaerak dituzten hurkoak ezagutzeko aukera aproposa izan daiteke Bizilagunak.

Pandemiaren ondorioz ekintza bereziak egin dira azken urteotan, baina aurreko urteetan eibartar askok hartu zuten parte Bizilagunak ekimenean eta, topaketak egin ondoren jasotako balorazioen arabera, parte-hartzaileak oso gustora egon ziren.

Bi familia, bazkari bat

Bizilagunak proiektuari esker urtero bi familia elkartzen dira bazkari baten bueltan, bata autoktonoa eta bestea errefuxiatu edo migrantea direlarik.

ZERGATIK BIZILAGUNAK?

Begiratu zure ingurura! Jatorri ezberdinetako pertsonak ikusiko dituzu zure herriko kaleetan. Galdetu al diozu inoiz zure buruari zerk bultzatu zituen hona etortzera edo zeintzuk diren euren zirrarak, usteak, interesak edota esperientziak? Beharbada, zu zeu ere beste herrialde batetik etorri zara eta ez duzu bertan bizi den jendea ezagutzeko aukerarik izan.

PARTE-HARTZAILE MOTAK

- Bertako familia/taldea
- Familia/talde migratua
- Dinamizatzailea

IZENA-EMATEKO

- immigrazioa@eibar.eus - 943-708440
- ongietorri@etakitto.eus - 943-200918

INFORMAZIO GEHIAGO

sosracismogipuzkoa.org/language/eu/bizilagunak-eus



Elkartze hau dinamizatzaile baten laguntzarekin egiten da.

Familia kontzeptua modu zabal batean ulertzen da; bizitza elkarrekin partekatzen duten eta beren burua hala kontsideratzen duten pertsona taldea, alegia. Hau da, guraso ezkongabeek, haurrak dituzten edo ez dituzten bikoteek, pisukideek, lagunak kuadrillek zein bakarrik bizi direnek parte hartzeko aukera dute.

Gauzak horrela, inguratzen gaituzten pertsonak, kulturak eta errealitateak ezagutzeko prest egotea nahikoa da Bizilagunak proiektuan parte hartzeko; eta dinamizatzaile, gonbidatu edota gonbidatzaile bezala eman daiteke izena.

Izen-ematea

Dagoeneko zabalik dago Bizilagunak ekimenen parte hartu ahal izateko izena emateko epea eta immigrazioa@eibar.eus edo ongietorri@etakitto.eus helbideetara idatzita eta 943 70 84 40 edo 943 20 09 18 telefonoetara deituta apuntatu daiteke. Bestela, sosracismogipuzkoa.org/language/eu/bizilagunak-eus webgunean ere ('Bazkariko parte-hartzaileak' atalean) izena emateko formularioak daude 'Bertako familia', 'Familia migrantea' eta 'Dinamizatzailea' aukeretan sakatuz.

Azaroaren 20an mahai baten bueltan bilduko dira jatorri ezberdinetako eibartarrak



Bizilagunak ekimenaren bitartez familia eibartarrak mahai baten inguruan biltzen dira elkar ezagutzeko.



Santa Kurutzeko eskola. FERNANDOSOLANA



AMAGOIA GOMEZ

Nork ez du maite askatasuna?

Igandea da. Goizeko zazpiak. Azitaingo gasolindegira dator Ainhoa nire bila. Oinez noa. Bidean jendea balantzaka. Atzo Sagardo Eguna ospatu zen Eibarren eta antza sagar zukua goxoa zegoen. Ondo lo egin. Gaurkoa egun luzea izango da guretzat. Lau ordutako bidaia daukagu aurretik. Aspaldi Ainhoarekin egon gabe eta gustura goaz berbetan. Bera ere urduri dagoela esaten dit eta gau txarra pasatu duela. Alde batera eta bestera. Ohean bueltaka. Ea dena ongi ateratzen den. Ea nola dagoen. Ea bidaia zer moduz. Donostira arte behe laino artean goaz, baina ez dago inolako trafikorik. Ondo. Altzan geldialdia egin eta Asierren kotxean abiatzen gara. Ez dugu Asier ezagutzen, baina berehala hasten gara elkarren ezagunei buruz hitz egiten. Euskal Herria txikia dela esan eta amankomunean lagunak ditugula ohartzen gara. Bakoitzaren bizitzari buruz mintzatzeko denbora ere hartzen dugu. Haizea, Ainhoa eta hiruok ikasketak elkarrekin egin genituela kontatzen diogu Asierri. Gradua bukatu ostean, Ainhoa baserri batera joan zen bizitzera. Nik doktorego tesia egiteko erabakia hartu nuen. Haizeak, aldiz, Euskal Herria askatzeko autua egin zuen. Hamalau urte daramatza lau hormen artean. Ea nola aurkitzen dugun gaur. Udan jaso nuen eskutitzean azkenaldian mugitua zebilela kontatzen zidan. Bost ordu ematen ditugu kartzelan berarekin. Asierrek kafe makinan txanponak sartzen dituen bitartean, bere laguna den Lur ezagutzen dugu. Bere alabari buruz hitz egiten digu. Bere bizitzako motorra. Hauspoa. Indarra ematen diona. Ondorengo orduak Haizearekin ematen ditugu. Atzo egon izan bagina moduan. Bilboko kafetegri batean bageunde bezala. Haizeak beti bezain ameslari jarraitzen du. Bere barneko desirak egia bihurtuz. Atzera begiratu gabe. Beti aurrerantz. Beraien baratzeko lore sorta bana oparitu eta bagoaz. Hurrengo arte. Sentimendu nahasiak. Poztasuna eta tristura. Galdera bat bueltaka buruan: Noizko Ostiral Santuko akordioa Euskal Herrian?

"Hurrengo arte. Sentimendu nahasiak. Poztasuna eta tristura. Galdera bat bueltaka buruan: Noizko Ostiral Santuko akordioa Euskal Herrian?"

Ez adiorik, Martin Zalakain

Bideoa



Aurreko domekan, urriaren 23an, Martin Zalakain ikuskizunaren azken emanaldia eskaini zuten Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Bost urteko bidaia amaierara heldu da 26 emanaldi eskaini eta 15.000 ikusle jaso ondoren. Kezka dantza taldeko 26 dantzarik hartu dute parte ikuskizunean eta inoiz ahaztuko ez duten abentura bizi izan dute.

Astlehenean bixamona berezia zuten Kezka dantza taldeko Miren Hazasek eta Idoia Lahidalgak. “Ordu asko izan ziren dena presatzen, gauzak ondo egiteko presioa sentitzen genuen eta emozionalki bizia izan zen. Amaitzeko gogoa genuen, baina era berean arraroa zen agur esatea”, esan digu Mirenek. Ildo beretik doa Idoia: “Erdi pozik eta erdi triste sentitu nintzen ni. Azken ikuskizuna izan zen, taldekide izan diren beste herrietako dantzariekin harremana egin dugu eta ez dakigu noiz ikusiko ditugun berriz... Bost urteko ibilbidea izan da azkenean”. Izan ere, pandemiaren ondorioz proiektua urte eta erdiz gelditu behar izan zuten, “eta hiru urterako izan behar zena bost urtekoa bihurtu da”, esan digutenez.

Juan Antonio Urbeltzek zuzentzen duen Argia dantza taldearen eta Artedrama antzerki taldearen eskutik eszenaratu da Martin Za-



Idoia eta Jone Lahidalga ahizpak eta Miren Hazas (erdian). EKHI BELAR

lakain ikuskizuna, Harkaitz Canok Pio Barojaren 'Zalakain abenturazalea' eleberria euskaratu eta moldatu ondoren, eta Euskal Herriko bederatzi dantza taldek hartu dute parte bertan: Donostiako Argiak, Elgoibarko Haritzak, Iruñeko Dugunak, Miarrizteko Maritzulak, Portugaleteko Elai Alaik, Astigarragako Astigarrek, Debako Gure Kaik eta Eibarko Kezkak. Hau da, ehun lagunetik gora ibili dira ikuskizunaren inguruan.

Mirenek eta Idoiak hasieratik jardun dute proiektu honetan eta horrela gogoratzen dute proiektuaren hasiera, 2017. urtean. "Tentsio gehiagorekin bizi genuen. Estreinatuta aurretik urte eta erdi inguru ibili ginen gauzak prestatzen, lan handia egin genuen, eta zerbait handia zertorrela ikusten zen, baina ez genekien zer zehazki", diosku Mirenek.

Hain zuzen ere, Martin Zalakainen papera egin duen Kezka dantza taldeko Josu Garatek ere hortik jotzen du: "Lehen eszenaratzean dena azaleratu zen, onena eta txarrena, baina ikuskizunak zuen potentzialitatea ikusi zen", bere iritziz.

Herriaren gustokoa

Arrazoa du Kezkako hirukoteak: ikuskizun handi baten parte ziren. Eta argi geratu zen lehen ikuskizunean. Martin Zalakain 2017ko azaroaren 11n estreinatu zen Bilboko Arriaga antzokian. Harrezkero, Euskal Herri osoan zehar ibili da antzoki handi, frontoi eta kiroldegietan, batzuetan birritan, Eibarko Coliseoan bezala, eta Victoria Eugeniean eman diote agurra. Ez da nolanahiko bira eta, amateurrek



Goian, Martin Zalakain antzezlanean parte hartu duten Kezka Dantza Taldeko kideetako batzuk. KEZKA DANTZA TALDEA / MARTINZALAKAIN.EUS

>>> Kezka dantza taldeko 26 lagunek hartu dute parte Martin Zalakain ikuskizunean

izanik, oso lan profesionala egin dute dantzariak. "Ondo pasatzeko egin ohi dugu dantza, eta Arriagan eta Victoria Eugeniean amaitu dugu dantzan!", esan digu Idoiak.

Josuk ere taldearen profesionaltasuna aldarrikatzen du. "Gu gaueko 20:00etatik aurrera bihurtzen gara profesional, norberaren lanak eta ardurak lagatzen ditugunean. Beraz, sakrifizioa eskatu digu, ez delako gauza puntuala izan, eta nekea pilatzen joan da. Zaila da hori kudeatzea, 100 lagun hara eta



Victoria Eugenia antzokiak jaso zuen Martin Zalakain ikuskizunaren azken emanaldia.. KEZKA DANTZATALDEA

hona mugitzea... baina badago hori guztia egiteko mugiarazten digun zerbait”, Josuren berbetan.

Publikoak lan-taldearen lan fina goraiatu du eta hori izan da Martin Zalakain hainbeste denboraz kartelean egon izanaren gakoetako bat. “Oso ikuskizun ona, ez nuen espero”, esaten zioten ingurukoek Mireni hasieran. “Herriari gustatu zaio”, baieztatzen du berak. Eta bai, gustatu zaio, batzuk sei aldiz ere joan direlako ikustera, Kezkakoek esan digutenez.

Baina, bizitzan gertatzen den bezala, denak du amaiera. Josuren ustez, “ikuskizuna naturalki heltzen joan zen emanalditik emanaldira, freskotasunez, etengabe hobetuz. Hasieran asko dago hobetzeko eta aurrera egin ahala hobetzeko margina txikiagoa da. Hain zuzen ere, hori da ikuskizuna amaitu behar den seinale”.

Arkale tabernan dantzan

Idoia eta Mirenek hasieratik bizi

>>> Martin Zalakainen lehen ikuskizuna Bilboko Arriaga Antzokian eskaini zuten; azkena, Donostiako Victoria Eugenia

izan dute Martin Zalakainen sortze-prozesua eta eurengan laga duen marka ez da nolana hikoia izan. Idoiarentzat lehen aldia zen Argiarekin elkarlanean. Mirenek, ostera, zerbait egin zuen eurekin, baina ordezkio bezala. “Oraingoan gure postua genuen ikuskizunean”, esan digute. Gainera, dantzatik harata go jo behar izan zuten, antzezpena gehituz. “Gutxienez, eszenatoki gainean nola egon behar ginen ikasi genuen”, Idoiak dioenez. “Aurretik hain barneratuta ez genituen jarre-

ra batzuk gureganatu genituen”, dio Mirenek.

Dantzariarentzat proiektu berezia izan da, ohiko jardunetik aldentzen den egitasmoa eta, pertsona moduan hazteaz gain, dantzari bezala ere bilakaera izan dute azken bost urteotan. “Ikuskizun batetik bestera ahalduz joan gara, gero eta lasaiago eskaini ditugu saioak, seguruago”, Mirenen ustez. “Antzokia edo frontoia izan, emankizun guztiak serio egin ditugu eta heldutasun puntu bat lortu dugu”, Idoiaren iritziz.

Lan serioa izan da, baina asko gozatu dute eibartarrek. “Kezkakoek Arkale izeneko tabernan girotutako dantza egiten genuen eta pieza horrek inprobisatzeko aukera ematen zigun. Bagenekien dantzaren bitartez nora jo behar genuen, baina ez genekien zein pauso egingo genituen eta bidean zer pasatuko zen”, azaldu digu Idoiak. “Oso dantza polita egitea tokatu zitzaigun”, Mirenen ustez.

JOSU GARATE • Dantzaria

“Urbeltzek eta Arregik sortutako mundua izan da gure itsasargia”

Kezka dantza taldeko Josu Garate Martin Zalakainen azalean jarri da ikuskizunean, protagonista papera eginez. Dantzan eta antzezten, Zalakainek bezala hilda amaitzen zituen ikuskizunak, baina demaseko esperientzia izan da berarentzat.



Josu Garate izan da Martin Zalakain. EKHI BELAR

Nola bizi izan zenuen azken emanaldia?

Azken emanaldia baino, hunkigarriagoa izan zen azken emanaldia eman behar genuela jakin genuenean. Izan ere, oso bidaia polita izan da niretzat, berezia. Gero, azken emanaldira sinestuta iritsi nintzen, lasaiago. Inguruko jendeak emozioz bizi izan zuen eta emozio kontraste askoren eguna izan zen.

Zuretzat nolako erronka izan da Zalakainen azalean jartzea?

Oparia izan da. Espero ez nuen momentu baten iritsi zitzaidan eta hasieran erdi ikaratuta hartu nuen, baina ikuskizuna forma hartzen hasi zen momentutik asko gozatu nuen. Dantzei forma emateaz gain, Zalakaini nire izaera ematen joan nintzen. Gero, ordura arte landu ez genuen antzeppenaren arloa zegoen eta, mugimendutik ahotsera pasatzean, gure gabeziak nabarmen geratzen ziren. Beraz, oso lanketa interesgarria egin genuen Ander Lipusekin eta bere alboan asko ikasi dugu.

Nolakoa izan da elkarlana Juan Antonio Urbeltzekin?

Urbeltzek segurtasuna eman digu. Marian Arregi emaztea zenarekin martxan jarritako munduak mugiarazi gaitu eta hori izan da gure itsasargia. Batzuetan ez genekien ondo genbiltzan edo galduta geunden, baina konfiantza genuen beste batzuetan funtzionatzen zuela ikusi genuelako eta, noski, gozatu egiten genuelako. Juan Antoniok ikuskizunaren ideia nagusia planteatu zigun eta ihes egiten zizkiguten hamaika gako eman ere. Gero, badago beste zati bat, dantzari dagokiona, berak ere ez dakiena zer izan daitekeen. Erreferentziak ditu, baina dantzaera eta gorputz bati forma eman behar zaio. Hori da konplexuena, gogorrena, eta hasieran zaila da engranajea mugitzea, baina gero martxan hasten da eta bat-batean lortu nahi duena ikusten du.

Martin Zalakain mugarrria izan da Kezkarentzat?

Niretzat mugarrria izan da, parte hartze berezia izan baitut. Kezkarentzat ere baietz pentsatu nahi dut. Taldeko lagun dezentek hartu dugu parte eta ondo eman ahal izan diogu jarraipena bost urtetan, oso zaila dena. Gainera, Argiarekin horrelako elkarlanean parte hartzea oso aberasgarria izan da, oparia. Horrelako beste aukerarik ez dago.

“Energia-komunitateen inguruan potentzial handia du Eibarrek, gauza asko egin daitezke”

RAQUEL RIERA ETA DANEL DE PRADO • Climathon-eko parte-hartzaileak



Joan den asteburuan Climathon Eibar 2022 egitasmoa egin zen Hezkuntza Esparruan. Bertan, parte-hartzaileek klima-aldaketaren aurka borrokatzeko proposatutako zenbait erronkei egin behar zieten aurre eta EHUKo Hiri eta Komunitate Adimenduak Erasmus Mundus Masterreko (SMACCs) ikasleek irabazi zuten sari nagusia.

Bigarren sarirako bi proiektu aukeratu zituzten, tartean Raquel Riera eta Danel De Pradoren. Kanariarra bat eta nafarra bestea, EHUK Eibarko egoitzan eskaintzen duen Energia Berriztagarrien Graduak ekarri zituen gurera, besteak beste, eta Eibarren bizi dira orain dela zenbait urte. Horrela, euren aukeratutako erronkak herriarekin du zerikusia: Eibarko udalerrian energia-komunitatea diseinatzea eta abian jartzea, autokontsumo-eredurik erabili gabe.

Zergatik aukeratu zenuten erronka hori?

RAQUEL: Erronka interesgarria iruditzen zitzaidan eta Eibarren zentratzea plus bat izan da, hemen bizi naizelako. Bestetik, autokontsumo-eredurik ez erabiltzearen kontua ere erakargarria egiten zitzaidan, normalean energia-komunitateak horretan oinarritzen direlako. Gainera, komunitatearen arloa ere oso interesgarria egiten zitzaidan.

Elkarlanean egin zenioten aurre erronka horri, baina nola?

DANEL: Raquelek eta biok bagenuen eskarmentua Climathon-en, iaz taldea osatu genuelako beste bi lagunekin. Aurten Raquelek eman zuen izena eta, bakarrik ibili

behar zenez, berarekin aritu nahi nuen galdetu zidaten. RAQUEL: Mesede egin zenidan, egia esan (barreak). Izan ere, Climathon-en parte hartzeko puntu garrantzitsu bat talde-lana egitea da. Horrez gain, Danelek ideiak ematea eta proiektua elkarrekin garatzea oso ondo etorri zitzaidan.

Hiru egunetan eman behar zenioten erantzuna erronkari. Zer egiteko gauza izan zineten denbora horretan?

RAQUEL: Hori da Climathon-en puntu garrantzitsuetako bat. Izan ere, egun bat eta erdi duzu proiektua garatzeko eta, gero, aurkezpena prestatu behar duzu. Orduan, denbora kontuan izan behar duzu eta noraino iritsi nahi duzun erabaki. Arazoa izan zen noraino jarraitu eta zenbat kalkulatu erabakitzea. Beraz, proiektuaren oinarriak planteatzea, egin nahi duguna ondo ulertaraztea eta aurrerago gauzak egiteko aukera ematea erabaki genuen. Hau da, ideia ondo iristea izan zen gure asmoa.

DANEL: Informazio asko bildu eta transmititu dezakezu, baina azkenean kontua da 15 minututan aurkeztu behar duzula guztia eta hiru egunetan ez dela energia-komunitate bat garatzen.

Beraz, aurkezpena ondo prestatzea eta ideiak ondo helaraztea ere garrantzitsua izango zen, ezta?



Raquel Rierak eta Danel De Pradok 2. saria eskuratu zuten Climathon Eibar 2022 lehiaketan. EKHI BELAR

RAQUEL: Zapatu osoa eduki genuen proiektuan lan egiteko eta horretan ibili ginen buru-belarri, aurkezpena albo batera lagata. Baina, noski, zuk garatutako ideia entzuleei eta epaileei igorri behar diezu, eta denboraz nahiko juxtu ibili ginen hori lantzeko. Beraz, aurkezpenean urduri ez jartzeko txarteltxo eta diapositiba batzuk prestatu genituen. Bestetik, Gradu Amaierako Lana (GRAL) gai horren inguruan egin nahi dudanez, aurkezpena nik bakarrik egin nuen, proiektua aurkezten nola sentitzen nintzen ikusteko batez ere.

DANEL: Gainera, Raquel iaz ezin izan zen proiektuaren aurkezpenean egon eta horrela arantza kendu zezakeen. **Zer planteatzen duzue Climathonen aurkeztutako proiektuan?**

DANEL: Erronka Eibarren energia-komunitatea diseinatzea eta abian jartzea zen, plaka fotovoltaikoen autokontsumo-eredurik erabili gabe. Azken finean, gaur egungo energia-komunitate gehienek autokontsumoa edo partekatutako autokontsumoa erabiltzen dute, eta beste alternatiba batzuk bilatu behar izan genituen. Energiaren zatian bakarrik zentratzeaz gain, komunitatea sortzearen ideian sakondu genuen. Hau

“Energia-komunitate baten barruan sortu daitezkeen sareek energia fotovoltaikoa sortze hutsak baino gehiago laguntzen dute trantsizio energetikoan”

da, komunitatea nola eratu, zeintzuk izango ziren komunitatearen parte eta baita komunitatearen alor pedagogikoa lantzea ere (besteak beste, komunitatearen parte izango zirentzat zenbait zerbitzu eskaintzea).

RAQUEL: Energia-komunitate baten barruan sortu daitezkeen sareek energia fotovoltaikoa sortze hutsak baino gehiago laguntzen dute trantsizio energetikoan. Beraz, autokontsumo fotovoltaikoaz gain dauden onura horiek guztiak nabarmentzen saiatu gara, eta era berean beste autokontsumo mota batzuk planteatu genituen. **Beraz, zuen lana kalkulu eta arlo teknikoetatik haragato joan da?**

Elkarriketaren
bideoa

RAQUEL: Orokorrean, horrelako ingeniari-tza-proiektuak garatzen direnean beti aipatzen da zenbat plaka fotovoltaiko jarriko ditugun, zenbat galdara... Eta kontsumoa murriztera zentratuko bagina? Ba interesgarriagoa izango litzateke. Izan ere, kontua ez litzateke izango energia ekoiztea bakarrik, baizik eta murriztea ere bai. Gero eta energia gutxiago behar badugu, orduan eta gutxiago ekoiztu beharko dugulako.

DANEL: Horrez gain, pobrezia energetikoaren gaiari nola heldu pentsatu genuen. Eibarren nahiko hedatuta dagoen arazoa da, herriko eraikinak eta instalazio termikoak nahiko zaharkituta daudelako. Ondorioz, jendeak ez du baliabide ekonomiko nahikorik bere etxea konfort egoeran mantentzeko. Hau da, pobrezia energetikoaren arrazoi bakarra ez da pobrezia ekonomikoa. Etxean diru-sarrera batzuk izan ditzakezu, baina etxebizitzaren baldintzak ez badira hain onak konforterako eta horretarako diru-kopuru handia bideratu behar baduzu, hor dago arazoa.

Raquel, esan duzunez, orain zure asmoa ideia hau GRAL-ean garatzea da?

RAQUEL: Hori da! Horregatik, hasieratik nuen argi erronka hau benetan egingarri izatea ahalbidetuko lukeen puntu batetik hasia nahi nuela. Eibarrek zer behar duen eta zer egin daitekeen aztertzea da asmoa. Energia-komunitateen inguruan potentzial handia ikusten dut, gauza asko egin daitezke, eta ez dago gauzak ez egiteko beharrik. GRAL-a garatzeko gogoia dut, baina ez dut nahi paperean bakarrik geratzea, eredu erreala bihurtzea nahiko nuke. Orduan, Climathon-en gure erronka planteatu zuen Tormesh enpresarekin elkarlanean tesia garatu nahi dut eta bizilagunen komunitateei, Udalari, elkartei eta abarrei eman nahi diet horren berri.

Zer behar da tesia paperetik errealitateara eramateko?

RAQUEL: Eibartarrek proiektuarekin bat egitea. Kontua ez da proiektua polita eta bideragarria dela ikusaraztea, baizik eta jendeak proiektu hori aurrera eraman nahi izatea. Euren ez badute nahi, ez dago ezer egiterik.



“Energia Berriztagarrien Gradua Eibarren eskaintzea gehiago aprobetxatu beharko litzateke, ikasle asko dagoelako gauzak egiteko gogoz”

Eibarren EHUren Energia Berriztagarrien Gradua dugu, Climathon egitasmoa egiten da... Nolako pisua du herriak energia berriztagarrien inguruan eta alderantziz?

DANEL: Unibertsitatea irla moduko bat da herrian bertan. Hemen Energia Berriztagarrien Gradua ikasten dugu, baina gero herrian ez dugu hain hedatuta ikusten energia berriztagarrien aplikaziorik. Gainditzeke dagoen ikasgaia da. Adibidez, zentral hidroelektriko bat dago abandonatuta Txonta auzoan.

RAQUEL: Askok dago egiteko eta Energia Berriztagarrien Gradua hemen egotea aprobetxatu beharko litzateke, ni bezala ikasle asko dagoelako gauzak egiteko gogoz.

Hiru eibartar podiumean txakurkros denboraldiaren hasieran

Burgoseko Castrillo del Val herrian jokaturako txakurkros denboraldiko lehenengo proban, Bikejoring modalitatean (txakurrak tiratutako bizikleta gainean) jokaturako lasterketan, Andoni Mayo eibartarrak eta Dexter bere txakurra lan bikaina egin zuten, gure herriko bikotearen neurrikoa ez zen proban. Ia 10 kilometroko distantzian jokatzeko den proba oraingoan zazpikoa bihurtu zuten, zirkuito azkarra egiteaz gain, teknikitik oso gutxi zuten ibilbidearekin. Horrelakoetan Dexter ez da azkarrenetakoa, baina, hala ere, hirugarren egin zuten, podiumera igotzeko. Baina ez zen Andoni Eibarko bakarria izan podiumera igotzen, ohiko txakurkros modali-



Andoni Mayo Bikejoring lasterketan.

tatean Unai Fernandezek (Dunkan txakurrarekin) eta Sonia Dominguezek ere (azken hau Ikarekin) postu berean amaitu zituzten euren lasterketan. Proba bi horiek 10 kilometroko distantzian jokatu ziren, temperatura altua "lagun" zutela.

Temperatura altuak izan ziren baita Arrigorriagan jokaturako Euskadiko Txakurkros Ligarako lehenengo proba puntuagarrian ere. Hori dela-eta, Mendikosoloko parkean bi kilometro eta erdira laburtutako ibilbidean, Unai Fernandezek eta Dunkanek 9. postuan amaitu zuten eta Sonia Dominguezek eta Dexterrek 13.ean. Azaroaren 5ean izango dute egutegiko hurrengo proba, Arrankudiagan.

Eibar FT-k Las Rozasen aurka hasiko du beste behin Erregearen Kopako ibilaldia

Astelehenean Espainiako Foball Federazioaren egoitzan egindako Kopako lehen kanporaketaren zozketak Eibar FT-k Las Rozasen jokatzeko erabaki zuten berriro. Partidu bakarrera jokaturako den kanporaketa izango da eta azaroaren 12an, 13an



Eibar FT-k asteburuan Malaga bisitatuko du.

edo 14an jokaturako da Las Rozasen, maila beheragokoa delako Madrilgo taldea. Eibarrek badaki Las Rozasen Kopa jokatzeko zer den, orain dela bi denboraldi talde beraren aurka jokatu baitzuen. Orduan ere, Mendilibarren azken denboraldian, larri ibili ziren eibartarrak aurrera egiteko, markagailuan 0-3 joan ondoren, azkenean luzapenean 3-4 gailendu zirelako. Madrilgo taldeak, orduan bezala, bi maila beherago jokatu du, Federazioko 2. Mailan. Orduko hartan Muto, Quique Gonzalez eta Pedro Leonen golek aurretik jarri zuten Eibarko taldea, baina sei minututan madrildarrek egindako beste hiru golek neurketa berdindu zuten. Luzapenean Sergi Enrich-ek, Bryan Gilen erdiraketa aprobetxatuta, 108. minutuan sartutako golak erabaki zuten kanporaketa.

Deporreko pilotariak Mendaron eta Mutrikun

Eibarko Klub Deportiboko pilota batzordeko pilotari eta palistek Asteleena frontoiko lanak noiz amaituko jarraitzen dute. Hori dela-eta, gaurkoa jardunaldi bete izango bada ere, bisitari izango ditugu beste behin. Mendaron 19:00etan hasiko den jaialdian Gipuzkoako Txapelketako eskuz banakakoan, Aratz Amillategi eta Arrasateko Etxabek neurtuko dituzte indarrak infantiletan eta, jarraian, binakako txapelketa berean, Ekhi Azpilikuetak eta Ugaitz Segurrolak osatutako bikoteak Bergarako Amuategi-Etxeberriari egingo dio aurre. Mutrikuko Miruaitz pilotalekuan bestalde, 21:30ean hasiko den jaialdian, paleta gomazko binakako partida jokaturako da Eibar 2 bikotearen eta bertako ordezkarien artean; bezperan toki berean izan zen Eibar 1.



Azaroaren 19an jokatu da Asier Cuevas herri-lasterketa

Asier Cuevas herri-lasterketaren IX. edizioa aurrekoetan baino zertxobait atzeratuago dator aurten, baina dagoeneko bertan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete, antolatzaile den Eibarko Klub Deportiboko bulegoetan, egunero 17:30etik 19:30era, edo baita www.sailkapenak.com web orrian. Izenemateak 12 euroko prezioa du. Lasterketa azaroaren 19an jokatu da, 17:00etan hasita, eta, ohikoari jarraituz, Eibarko kaleetatik barrena zazpi kilometro eta erdi izango ditu. Lasterketaren inguruan beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzte Deporrekoe eta egun horretako egitarauan lasterketaren aurretik, 15:00etan, Multikirolak Atletismo izango da. Behin proba amaitu eta gero, 18:30ean sari-banaketa hasiko da eta, jarraian, 19:00etan altuera jauzien saioei ekingo diete Untzagan, lehenengo gaztetxoekin eta, ondoren, 20:00etatik aurrera, gazte eta seniorrekin.



Hamar urpekari bataiatu zituzten aurreko zapatuan Orbea kiroldegiko igerilekuan

Eibarko Klub Deportiboko Urpekari-tza batzordekoek urteroko urpekari-tza bataioaren saioa egin zuten zapatu arratsaldean, 14:00etan hasi eta 17:00etan amaitzeko. Hamar ikasle izan ziren Orbea kiroldegiko igerilekuan, lehenengoz ur azpian

aire botila bati esker arnastea zerden esperimentatzeko: “Ondo gozatu ahal izan zuten ekintzaz eta, horrez gain, inguratu ziren guztiek errepikatzeko gogoz amaitu zuten, hurrengo batean itsasoan izan da-din desiatzen”.

Mecalbe Eibar nagusi Barakaldoren aurrean

1. Nazional Mailako gizonezkoen taldeak 34-20 irabazi zion aurreko asteburuan Barakaldori eta, emaitza horrekin, sailkapeneko hirugarren postuan egonkortu da, Zara-

goza liderrarengatik hiru puntura eta Iruñeako Anaitasunak baino puntu bat gutxiagorekin. Goleatzaile asko izan zituen neurketak, baina Mikel Zuloaga nabarmendu zen oraingoan ere, 11 golekin; Alex Puente, sei golekin, eta Barrueta-beña eta Egoitz Blanco, launarekin, jarraitu zioten. Asteburu honetan Egia-ri egingo diote bisita.

Zilarrezko Ohorezko Mailan jotkatzen duen emakumezkoen lehen taldeak, bestalde, lan ona egin bazuen ere, batez ere defentsan, azkenean 19-17 galdu zuen San Adrian taldearen kantzian eta beheko postuetan jarraitzen du. Hurrengo jardunaldian Aiala bisitatuko dute Zarautzen eta zaila izango dute puntuak eskuratzea bigarren postuan sailkatuaren kantzian.



Azaroaren 6rako antolatu dute Udazkentraila Kalamuakoek

Eibarko Klub Deportiboko Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako probaren edizio berria izango da azaroko lehen domekan, Depor aurretik goizeko 08:30ean hasi eta handik “bi ordu eta erdira, hirura, amaituko dena” Deporren bertan. “Zailtasunik gabeko” 12 kilometro izango dira betebeharrekoak, 829 metroko goranzko desnibel metatuarekin. Trail irteera doakoa bada ere, parte hartu nahi duten mendi korrikalari eta mendizaleek izena eman beharko dute (antolaketa lana errazteko) kalamuakorrikalaritalddea@gmail.com helbidera idatziz. Mendian korrika egiteko oinetakoak, frontala, telefono mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait eramatea gomendatzen da eta, jakina, baita mendian federatuta egotea ere.

Ibilbideari dagokionez hasierako kilometroak Eibarko kaleetatik izango dira Amañako eskolara arte. Hiru kilometro eta erdiko lehenen-



go zati hori trotean joateko aproposa da. 700 metro igota, Artarraiko goia hartuko dute eta, Elorreta baserria pasatuta, Urko puntan izango dira, seigarren kilometroa osatuta (ibilbidearen erdian izan arren, igo beharreko guztia eginda izango dute). Handik Trabakuarantz hartuko dute, gero Elorretan ezkerre-

tara egin eta Arrajolara jaisteko. Aritxuleta baserrira helduko dira, eskumako pistatik Sosola baserriraino joateko. Ezkerreko mendibidea hartu eta Arrajola baserrian izango dira 10. kilometroan. Behin hor Itziotik aparkalekura irten eta Arratebidetik Ardantzara joango dira Depor aurrean amaitzeko.

Espainiako Jiu-Jitsu Koparen VII. edizioa asteburuan kiroldegian

Gure herrian zazpigarrenez antolatuko den Espainiako Jiu-Jitsu Kopak bihar eta etzi kirol modalitate

horretako estatuko ordezkari onenak bilduko ditu. Ipuruak estatuko eta atzerriko 150 judoka baino gehia-



Kalamuako ordezkariak ere bikain jardun izan dute Kopako aurreko edizioetan.

go izango ditu lehiatzen, Borroka, Ne-Waza edo lurreko judoa, Duo eta Show modalitateetan jardungo duten parte-hartzaileekin. Aurten urrezko ezteiak betetzen dituen Kalamua Judo Klubak antolatutako txapelketa goizeko 09:00etan hasiko da eta, estatuko txapeldunekin batera, han izango dira klubeko ordezkariak ere euren onena ematen. Espainiako autonomia guztietako onenak etortzeaz aparte (Espainiako ekipo nazionala tartean), federazioetako ordezkari eta lehen mailako kirol-epaileek ere bisitatuko gaituzte, “urtero bezala, hemen zelan hartzen ditugun ikusita, pozarren itzultzen direlako”.



Euskaraldiarekin batera, hitzez ekiteko garaia ailegatu zaigu



2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekingo diogu Euskaraldiari. Kaleak beteko ditugu berriz ere, euskaraz hitz egitea inoiz baino errazagoa izan dadin. Belarriprestok eta ahobizikiok aukera berriak izan ditzagun lan egingo dugu elkarrekin, auzoz auzo, herriz herri eta arigunez arigune. Hitzez ekiteko garaia heldu da. Eta zu, belarriprest izango zara? Ahobizi? Bata zein bestea aukeratu, badakizu zer egin: eman izena eta jaso zure txapa.

Informazio gehiago webgunean:



Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da. Aurtengo edizioa hirugarrena da, eta azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo da ariketa.

Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko presidentek dioten bezala, “Euskaraldia praktika da, erabilera da. Ez da euskararen aldeko kanpaina. Ez da jarrera baten adierazpena, jokaera praktikoko baten inguruko konpromisoa baizik; norbanako mailan nahiz kolektiboan. Ez da euskarak dituen aje guztien sendagai mirakulutsua, baina erabileran aurrerapausoak emateko tresna eraginkorra da, ikerketek frogatu bezala. Bere ahalmen nagusien artean dago eragin masiboarena. Euskaraldiaren bidez, milaka eta milaka euskaldun (hartzaile nahiz hiztun) euskara erabiltzeko prest agertu dira publikoki, aurretik erabiltzen ez zuten pertsonekin eta egoeratan. Euskaraldiari esker, horretarako bultzada eta motibazioa sentitu dute, eta urrats hori emateko baldintza egokiak sumatu dituzte inguruan. Horregatik da horren garrantzitsua parte hartzea masiboa izatea, ahalik eta txapa gehien ikustea leku guztietan, eta kaleak berriz hartzea banderolekin, muralekin, etab. Gutxiene uste dugun pertsona, giro horretan, euskara erabiltzera animatu daitekeelako”.

Euskaraldiaren lehen edizioak sekulako eragina izan zuen eta bigarre-na ere benetan arrakastatsua izan zen, nahiz eta pandemia baten erdian

egin behar izan zen. Eta emaitzarekin pozik daude arduradunak: “Aurreko Euskaraldiek erakutsi diguten bezala, bukatu eta hilabeteetara, egoera ariketa egin aurretik baino hobea da”.

Lehenik eta behin, era guztietako entitateei egin zitzaizkien Euskaraldian parte hartzeko deia, izena eman eta ariguneak, hau da, euskaraz aritzeko guneak sor ditzaten, eta horiendako izen-ematea amaitzear dago. Eta norbanakoek izena emateko epea zabalik dago eta, beraz, orain daukagu parte hartzea berretsi edo izena estreinakoz emateko aukera.

Izena emateko tokiak Eibarren

On-line izena emateko, www.euskaraldia.eus helbidean sartu eta bertan aurkituko duzuen izen-emate orria bete, besterik ez da egin behar. Eta izen-ematea aurrez aurre egitea nahiago baduzue, Eibarren bertan egin dezakezue, honako egoitza hauetako batera joanda: ...eta kitto! Euskara Elkarte (Urkizu, 11), Udal Euskaltegia (Portalea, 2. solairua), AEK euskaltegia (Sostoatarren, 1) edo Depor taberna (Toribio Etxebarria kalean). Aipatutako gune horietan Euskaraldia hasi bitartean izena-eman eta txapa jaso daiteke.

Gainera, kalean ere mahaiak jarriko dituzte hainbat egunetan, herriko toki ezberdinetan: azaroaren 3an Amañako pasealekuan, 18:00etatik 20:00etara; azaroaren 12an, Errebal Plazan eta Untzagan, 18:00etatik 20:00etara; eta azaroaren 17an, Urkizuko parkean, 18:00etatik 19:30era. Mahai horietan, izena eman eta txapa jasotzeaz gain, Euskaraldiari buruzko informazioa emango zaie herritarrei eta etxeetako leiho eta balkoiak apaintzeko banderak ere salduko dituzte (5 euro).

Bestalde, Euskaraldia dela eta atera diren arropa eta bestelako produktuak erosi nahi dituenak Internet bidez erosi beharko ditu. Hala ere, kalean ipiniko diren mahaietan probatzeko eta neurria jakiteko aukera egongo da, nahiz eta ez saldu. Antolatzaileek esan dutenez, produktu batzuk agortzen hasi dira eta, beraz, interesdunak Euskaraldiaren webgunean begiratu beharko du erosteko aukerarik duen ala ez. Eta azaroaren 12an, 18:00etatik 21:00etara, Euskaraldiko furgoneta Eibarren, Untzagan egongo da, dendako produktuekin, eta mahaia ere bertan egongo da.



Izena emateko AEK-ra, Udal Euskaltegira, Klub Deportibora edo ...eta kitto!-ra joan daiteke



Etxeetako balkoiak eta leihoak Euskaraldirako jantzi nahi izanez gero, Eibarren bertan erosi daitezke banderaxoak.

PEDRO PALACIN • Orkestra zuzendaria

“Kontzertu oso baikorra, polita eta freskoa izango da”

Pedro Palacinek zuzentzen duen Andres de Eiguren Orkestrak Aita Madinaren “Concerto for harp and orchestra” obraren mundu mailako estreinaldia egingo du azaroaren Sean, 19:00etan, Coliseon. Mozarten “K 550 Sinfoniak” biribilduko du kontzertua (lehen bertsioa). Sarrerak 10 euro balio du eta aurretik zein egunean bertan eros daiteke.



Madinak amaitu barik laga zuen lana eta, beraz, estreinatu barik dagoena orkestrarako moldatu du zuzendariak. SILBIA HERNANDEZ

Zergatik aukeratu duzue Aita Madinaren obra hori?

Hasteko, ikaragarritzko konpositore handia izan zelako. Inork ez du ahaztu, baina ez dago bere lekuan. Orain dela 50 urte hil zenez, omenalditxo batzuk egin dizkiote, baina estreinaldi gutxi. Guk eskainiko duguna bukatu barik zegoen, guk esaten dugun moduan, gidoia zegoen prestatuta, piano eta harparako, baina orkestratu gabe zegoen, eta lan hori nik egin dut. Orduan, estreinatuko dugu hori, Madinak amaitu gabe eta, noski, estreinatu gabe laga zuen lana. Harparako kontzertua bere lagun Nicanor Zabaletari eskainita dago, 1953an egin zuen Saltan, Argentinan zegoenean eta, ez dakigu zergatik, bukatu gabe geratu zen. 50. urteurrena jendeari jakitera emateko data polita dela uste dut.

Nolakoa izan da orkestrara moldatzeko lan hori? Ar-dura berezia izan da zuretzat?

Bai, egia da hori. Hasten zarenean horrelako lan batekin jakin behar duzu berak nola nahiko zuen. Orkestrara moldatzeko modu asko daude, baina bere esentzia jarri egin behar duzu. Harparako parte errebisatu egin dute, gauza batzuk oso zailak ziren jotzeko, hori beti gertatzen da estreinatzeke obra batekin. Harpa-joleak egin du lan hori eta bertsio hori joko dugu.

Beraz, mundu mailako estreinaldia izango da.

Bai, erabat. Orkestrarako jotzea ez da horren zaila, horrelakoetan solistari lagundu egiten dio. Momentu batzuetan elkarrizketa moduko bat izaten dute, eta beste batzuetan solista da inportanteena eta lagundu egin behar zaio.

Harparako errebisioa Claudia Besnék egin du, ezta?

Bai, eta bera arituko da solista bezala. Gainera, gauza asko bildu dira batera. Claudia Besné Salzburgen dago, master bat bukatzen, eta masterra Nicanor Zabaleta bekarekin egiten ari da. Eta kontzertuaren bigarren zatian Mozarten obra bat joko dugu, eta Mozart Salzbургokoa da.

Nolakoa kontzertua izango da?

Kontzertu oso baikorra da, polita, freskoa, positiboa. Eta, gainera, euskal keinuak dauzka. Eta bigarren zatian apaiza ikusten dela esango nuke.



Antzerkia eta musika Ibuprofeno Teatroyen eskutik

Gaur 20:30ean “Smoke on the water” antzezlan hartuko du Coliseok, Ibuprofeno Teatroyen eskutik. Gai asko nahasten dituen istorioa da: sexua, drogak, rock and rolla, gaixotasuna, indarkeria, prostituzioa, bandalismoa, heriotza eta, jakina, maitasuna. Hori guztia zuzeneko musikarekin batera aurkeztuko dute. Ibuprofeno Teatro Santiago Cortegosok eta Marián Bañobrek osatzen dute. Galiziako eta kanpoko konpainia ugaritan ibili ondoren, 2010ean sortu zuten, antzerki-proiektuei modu pertsonalean eta independentean ekiteko. Sarrerak 10 euro balio du.



Martitzenean taularatuko dute “Hondamendia” lana

Axut! eta Artedrama konpainiek ‘Hondamendia’ sortu dute, 2019an Zaldibarko zabortegian gertatutakoa eta COVID-19aren pandemia ardatz dituen antzezlan. Lana urriaren 13an estreinatu zuten eta azaroaren 1ean helduko da gurera, Coliseo antzokira, 19:00etan. Harkaitz Canok idatzi du gidoia eta Ximun Fuchs da zuzendaria. Aktoreak, oster, Ander Lipus, Ane Sagues, Ruth Gimera, Jon Ander Urresti, Maite Larburu, Manex Fuchs bera, Eneko Gil eta Maialen Belaustegi eibartarra. Sarreraren prezioa 12 eurokoa da.



Gaur banatuko dituzte Indalecio Ojanguren Sariak

Gaur banatuko dituzte Indalecio Ojanguren XXXV. argazki-lehiaketako sariak Portaleko erakusketa aretoan, saritutako argazkien eta edizio honetako parte-hartzaileen selekzioaren erakusketa zabaltzarekin batera. Azaroaren 20ra arte egongo da ikusgai. Edizio honetan bilduma onenari Ohorezko Saria Aitor Aranak irabazi du eta saritutako beste argazkilariak Oskar Baglietto, Jose Agustin Gurruchaga, Diego Pedra, Jose Lopez, Jose Luis Irigoien, Manu Barreiro, Oskar Gaskon, Jose Vila, Mikel Urionaguena, Josu Gisasola eta Malen Carbajo dira.

Almudena Maesoren erakusketa

Bihar jarriko dituzte ikusgai Almudena Maeso artista ermuarren lanak Portaleko erakusketa aretoan. Azaroaren 20ra arte egongo da zabalik, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Artistaren berbetan, “momentuan lantzen ari naizen artelanek osatzen dute erakusketa. Bertan, pintura, eskultura, marrazki eta grabatuak ikus daitezke”.




Aire zabaleko XLV. pintura lehiaketa egingo da domekan


Domekan egingo da Udalak, Eibarko Artisten Elkar-tearen laguntzarekin, antolatzen duen lehiaketa. Bertan nahi duten artista guztiek parte har dezakete, gai askearekin eta pintura-teknika guztiekin. Izena emateko udaletxeko patiora joan beharko da, 09:00etatik 11:00etara, eta lanak udaletxearen kanpoaldean entregatuko dira, 13:30ak aurretik.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6	3	5		2	
		6			
3	2	4		9	6
1		8	9		
	7	1	3	8	
		5	4		7
8	3		4	6	5
		6			
9		2	7	4	



soluzioa



soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

7		5		9
4	1	9		
5			4	6
2		8	7	9
	3		8	
9		3	5	7
8	6			1
		6	5	2
5		2		6

**S
U
D
O
K
U**



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



Urriak 28/Azaroak 3

BARIXAKUA 28

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:30 2-8 urte bitarteko haurrentzat. Urkizuko parkea.

PLAZARA DANTZARA

19:00 Dantzaldia (lotuan, soltean, sokan, jauziak, ingurutxoak, kontradantzak...). Musika: Iker Allur. Plazan laguntzen: Patxi Montero. Erreal Plaza.

AZKEN OSTIRALA

19:30 Etxerat eta Sare elkarteek deituta. Untzaga.



MUISIKA

20:30 "Smoke on the water" (Ibuprofeno). Coliseo.



ZAPATUA 29

PAILAZOAK

16:30 eta 19:00 "Kuikui" (Pirritx, Porrotx eta Marimotots). Coliseo.



ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Munduan zehar", Vanessa González Moyarekin. Portalea (areto nagusia).



DOMEKA 30

PINTURA LEHIAKETA

09:00/13:30 Aire zabaleko XLV. pintura lehiaketa. Izen-ematea 11:00ak arte, udaletxeiko patioan.



MARTITZENA 1

ANTZERKIA

19:00 "Hondamendia" (Axut-Artedrama). Coliseo.



EGUENA 3

HERRI BATZARRA

18:00 EH Bilduren herri batzarra eta Oskar Matuteren hitzaldia. Bilgunea.

EUSKARALDIA

18:00/20:00 Euskaraldian izena emateko mahaia. Amañako pasealekua.



ERAKUSKETAK

Urriaren 31ra arte:

- "HABLAR VENECIA" argazki erakusketa kolektiboa. (Depor taberna).
- IRATI AYARZaren "Gure familia eta beste istorio batzuk". (Portalea taberna).

Azaroaren 20ra arte:

- "INDALEZIO OJANGUREN XXXV. argazki lehiaketa". (Portalea).
- ALMU MAESoren "Azulejos". (Portalea).

Abenduaren 11ra arte:

- "EIBAR ORGANOSZ BLAI". (Eibarko Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

KONTZERTUA

28an (barixakua) / 19:00

Herri Antzokia

Bikustik (Patxi Zabaleta eta Jon Gurrutxaga). 10 euro.

ERMUA

BERTSO JAIALDIA

28an (barixakua) / 20:30

Ermua Antzokia

Manex Agirre, Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal.

ANTZERKIA

29an (zapatua) / 17:00

Ermua Antzokia

"Aioko". Zurrunka taldea.

SORALUZE

KONTZERTUA

30ean (domeka) / 19:00

Herriko Antzokia

Steve Krase feat. Travellin' Brothers.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **29an:** 22:30
- **30ean:** 20:00
- **31n:** 20:30

“La chica salvaje”
Zuzendaria: Olivia Newman



2 ARETOA

- **29an:** 19:45, 22:30
- **30ean:** 17:00, 20:00
- **31n:** 20:30

“Un año, una noche”
Zuzendaria: Isaki Lacuesta



ANTZOKIA

- **29an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **30ean:** 17:00 (1 aretoa), 20:00
- **31n:** 20:30

“Black Adam”
Zuzendaria: Jaume Collet Serra



ANTZOKIA

- **29an:** 17:00 (2 aretoa)
- **30ean:** 17:00

“Operación bebé oso”
Zuzendaria: Vasily Rovenskiy



M^a Angeles Arrieta Murgoitio

9. URTEURRENA
2013/10/25

“Bederatzi urte badira ere gure aldetik joan zarela...
EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA”

- Jose Miguel eta Jaione Gorospe, zure senarra eta zure alaba -



<p>*** FUNEUSKADI Grupo Ansoa</p>	<p>*** FUNERARIA MUGICA Funerakadi</p>
	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xivilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otaola hilerriaren ondoan)</p> <p>Ernuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionaaak, **ENEKO!!** Azaruaren 2xan 7 urte beteko dozuz-eta. Patxo mordo bat zure famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARKEL**, bixar 3 urte beteko dozuz-eta. Egun zoragarria pasau! Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **MIKEL!** Topera disfrutau bixarko eguna. 6 urte potolo! Patxo erraldoia zure famelixako danon partez.



Zorionak, **IGOR**, atzo 9 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **DANEL** Berrizbeitia, gure txikixak urtetxua egin zebalako atzo. Patxo haundi bat etxekuon eta, batez be, Jon eta Unairen partez.



Zorionak, **OINATZ**, hillaren 26xan 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musua famelixaren eta, batez be, Bernat, Lur eta Naikeren partez.



Zorionak, **MAIALEN** Arrillaga, neska haundi!! Atzo 10 urte bete zenduaz-en-eta. Patxito eta besarkada asko etxekuen partez.



Zorionak, **LANDER!** Eguaztenian 6 urte egin zenduaz-en-eta. Anaixa eta lehengusu onena zara, jarraitu holan. Maite zaituen famelixa.



Zorionak, **EDER** Bereciartua Santos, gaur 9 urte betetzen dozuz-eta. Musuak famelixa guztiaren eta, batez be, Iزارo eta Aiurren partez.



Zorionak, **PAÚL!!!** Astelehenian urtetxua beteko dozu!! Haundixa bihurtu da etxeko erregia! Maitte zaituen amatxo eta aitatxo!!



Zorionak, **NICO!** Gure txikixak bixar 3 urte beteko ditte-eta. Etxekuen partez!





Ontziratze-soluzioen diseinu eta fabrikazioan espezializatutako enpresa hainbat lanpostutako apuntatu nahi duten pertsonen bila ari da:

Ingeniaritza Elektronikoa	Mekanizazioa
Ingeniaritza Mekanikoa	Galdaragintza
Muntaketa	



Behiago jakin nahi duzue? Eskaneatu QR kodeak!



Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Buhardilla saltzen da Bidebarrieta 12an. Trasteak sartzeko egokia. 676102214.

1.2. Errentan

- Ama-alabek 2 logeako etxea hartuko lukete alokairuan Jarriñeta inguruan. 627777468.
- 2-3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 664823992..

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Erdigunetik gertu lokala alokagai. Negozio zein gazteentzat (baimen guztiekin). 634430647

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747447360.
- Gizonezkoa eskaintzen da pegorak garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. 643575070.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko, nagusiak zaintzeko eta tabernan laguntzeko. 622023451.
- Gizonezkoa eskaintzen da pegorak garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. 643575039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko: garbitu, lagundu eta errekauek egiteko. 685185462.
- Mutil euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 688723822.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 674828085.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarak egiteko. Orduka. 695368959.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 658398474.
- Emakume euskalduna eta arduratsua eskaintzen da lanerako. Esperientzia dendarri lanetan eta garbitzaile bezala. 649021380.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 679946934.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 631932322.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. HH eta LH ikasketekin. 671459654.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero jarduteko eta garbiketarak egiteko. 624869718..

4.2. Langile bila

- Idazkaria behar da aholkularitza batean. Orduka. 622183411. luengo41@gmail.com
- Odontologoa behar da klinika batean, lehenbailehen hasteko. Bidali curriculum: hortz-klinika.06@gmail.com
- Elgoibarko mekanizazio-entresak langilea behar du Danobat RP1200 artezteko makinan (rektifikadora) lan egiteko. Esperientziarekin. Lan-kontratu mugagabea.. email: angel@swisslan.es

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Magisteritza tituluduna eskaintzen da 1. Hezkuntzatik aurrerako klaseak emateko. 688746368.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Ponyak saltzen dira. 679824081.
- Bateria elektronikoa salgai. Millenium MPS-400. 658748823.



ARRAZOIA
N° 83

**Jasangarriagoak eta
aktiboagoak izan
behar gara**



Beti daude zure ilusioekin jarraitzeko arrazoiak

Etxebizitzak Erreal Plazaren ondoan

Gimnasioa | Gourmet Aretoa | Garaje esta Trastelekua

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2

Tel. 943 20 41 94

Fax. 943 82 00 06

egurenyasociados@gmail.com

M^a MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 esk.

Tel. 943 20 17 03

Fax. 943 70 20 49

m_ari_sanz@hotmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.es

consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



Barrena 120.000 €
3 logela, egongela, sukaldea
balkoiarekin, komuna.
Berriztua. Igogailua 0 kotan.
Gas natural berogailua.



Bidebarrieta 198.000 €
150 m². Bi etxebizitza egiteko
aukera. Igogailua.



Egiguretarren 215.000 €
Pisu altua. 3 logela, egongela,
sukaldea, 2 komun.
Eguzkitsua. Igogailua
eta berogailua.



Iparragirre 75.000 €
3 logela, egongela, sukaldea,
komuna. Guztiz kanpora
begira. Bista paregabeak.



Jardineteta 95.000 €
3 logela, egongela, sukaldea,
komuna. Bi balkoiarekin.
Oso eguzkitsua.



Miguel de Aginaga Kontsultatu
3 logela, egongela, sukaldea,
komuna. Ganbararekin.
Igoailua 0 kotan.



Muzategi Kontsultatu
Erdiguneko apartamentua.
Primerakoa.



Muzategi Kontsultatu
125 m². 3 logela, egongela
handia, sukaldea, 2 komun.
Garaje ibxia eta ganbara
handia.



Romualdo Galdos Kontsultatu
3 logela, egongela, sukaldea,
komuna. Balkoiarekin.
Igoailua, berogailua
eta ganbara.



San Juan Kontsultatu
Azken pisua. 4 logela,
egongela, sukaldea, 2 komun.
Igoailua 0 kotan.



San Juan Kontsultatu
170 m². Eguzkitsua.
Guztiz kanpora begira.
Igoailua 0 kotan.



Sautxi 145.000 €
Bikaina. 2 logela, egongela,
sukaldea, 2 komun.
Trasteroa eta garajea.



Sostoaatarren 108.000 €
70 m². Balkoiarekin. Bizitzera
sartzeko moduan.



Toribio Etxebarria Kontsultatu
Eraikin ia berria. 3 logela.



Urki 159.000 €
Estrenatzeko. 2 logela.
Igoailua 0 kotan.



Urki Kontsultatu
Bizitzera sartzeko moduan.
2 logela, egongela, sukaldea,
komuna. Igoailua 0 kotan.